

ETORKIZUN BAKETSUAREN OIHARTZUNAK

Duela aste batzuk, ETA antolaketa terroristaren jarduera armatua amaitu zeneko hamargarren urteurrena ospatzen zen. Duela aste batzuk, itxiak ziruditen zauriak odola zerioten berriro. Bazirudien duela hamar urte itxi zela Espainiako eta Euskadiko azken urteetako historiako etapa ilunenetako bat. Orain, ordea, konturatu gara ezinbestean amaitu gabeko garaia dela. Gaur egun, bonben eta bereizi gabeko tiroen oihartzunak berpiztu egiten dira; gaur egun, biktima harrigarri horien eta haien familia ausarten garrasien oihartzunak berpizten dira. Etorkizun baketsuaren oihartzunak... Etorkizun baketsuaren oihartzunak...

Euskadi aldatu egin da 1959an Euskadi Ta Askatasuna sortu zenetik. Urrunago joan gabe, estatu-mailan trantsizio-prozesu bat gertatu zen, diktadura-aldi frankista lurperatu zuena zirudiena. Hala ere, taldea sortu eta 60 urtera eta aldaketa soziopolitiko eta soziokultural desberdinekin, bandaren izena ez da ezezaguna, eta ezin izango luke izan. Gure nazioak odola isuri du, pistolaz eta subfusilez hornitutako terrorista-talde baten zoritxar politikoagatik. Gorrotoan oinarritutako planteamendu manikeo batek Europan historia gehien duen gizarteetako bat nola zatitu duen ikusi du munduak. 10 urte igaro dira, baina zertxobait gutxiago taldeak hil zuen azken alditik, 2010eko martxoan, Frantzian. Zoritxarrez, haren krimenak mugaz gaindikoak izan ziren.

Helburu politikoak lortzeko bide gisa izua sustatzen duen mugimendua da terrorista. Beldur horrek, pultsio humanista eta solidarioen inguratzailleak, eztabaida kolektiboa eragotzi zuen, eta zentzu hertsian zikiratu zuen. Etsaiak sortu zituen lehen instantzian bere subjektu politiko gisa identifikatzen zituen artean, eta bere kausarekiko traidoreak definitu eta seinalatu zituen. Mehatxuzko gutunak, jabetzaren aurkako erasoak, mugimendu- eta pentsamendu-askatasunaren koertzioa, espioitza, arbuio eta ostrazismo soziala, dianak ezartzea... Hori guztia, kasurik okerreanean, sekula imajinatu ezin den gizatasunik gabeko ekintza handienaren aitzinean: odol hotzeko hilketa. Kategoriazko-hilketa ingeniartzen bidez egileek beren kabuz justifikatutako ekintza, giza ezaugarririk gabe uzten zuten lehenik hiltzailea eta, azkenik, biktima ondorio guztiekin. Gorputz errugabea lurrean etzanda dago, gorputz-adarretako batetik odola kanporatuz, begiak zuri erretzen dira edo betazalak behin betiko ixten dira, despedazatutako gorputzek eta urratutako arropen estaltzen dute atentatua... Nork pentsa dezake hori ekintza iraultzaile gisa? Nork pentsatuko luke horrek, urrunetik, nazio baten etorkizuneko oparotasun handiengoaren alde egin dezakeela? Beldurrak eragiten duen inposizioaren artean eraikitako herrialdea, zoruan etzanda zegoen hurkoa dela pentsatu nahi ez duen arimatik sortzen den negarra eta nagusiki berde den nazioa gorri bortitz batez tindatzen duen odola.

Hauek ez dira memoria bakarrak, euskal iruditeria kolektiboan dauden oihartzun bakarrak. Terrorismoaren historia Euskadin ere terrorismoaren aurkako borrokaren historia da. Beldurrari itxaropenarekin aurre egin zitzaion, inposaketa elkartasunaren bitartez borrokatu zen eta hiltzaileen harrotasuna biktimekiko eta haien arteko enpatiaz. Despertsonalizatzen zutenen kontra, elkar ezagutzen eta etorkizun baketsu bat izateko aukeran pentsatzen jakin

zen. Ariketa horietatik heroiak sortu ziren, benetako heroiak aberriagatik, eta ez zerga iraultzailekoak, nahizta horietatik batzuk koldarki hildak izan izuaren adaliden eskuetan.

Beldurraren aurrean, itxaropen distiratsuena beti piztuko da inorenganatutako txokoetatik. Euskara, Euskadi eta gure txokoak ezer ez bezain beste maite ditugu. Hauek babestu beharreko grina euskal arima guztietan pizten da, inposizioaren aurkako eztabaida zuzenean, izua gaindituz. Gaur inoiz ez bezala elkar sinisten dugu bakez beteriko etorkizun gogotsu batean, gaurtik eta ia hamar urteetaik eraikitzen ibili garena.

10 urte igaro dira eta etorkizun baketsuaren oihartzunak ozen diraute...